

ETXEBIZITZA ERREHABILITATU EDO BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAR-ORRIA (KOMUNITATEKO OBRAK)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

<ul style="list-style-type: none">• Obrak egiteko udal baimena/eskaera eta ordaindutako tasak, halakorik izanez gero.
<ul style="list-style-type: none">• Eskaerako obrarako partaidetza-kuoten zerrenda. Guztira, kuotak batuta, partaidetzaren % 100 izan behar dira.
<ul style="list-style-type: none">• Obren aurrekontua (kontratuko gremioei dagokiena) partidaren arabera banakatuta, partida bakoitzaren neurketa eta precio unitarioa adierazita. Gainera, 1, 2 eta 3 motetako obrak ere sartu beharko dira; horiek EITaren amaierako irizpenean jasotzen dira, halakorik egonez gero. <p>Konponketa horiek ordurako eginda egongo balira, EITaren akatsak zuzendu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.</p>
<ul style="list-style-type: none">• Eraikuntzaren Ikuskapen Teknikoa, dagokion laguntzaren eskaera formalizatu aurretik egina
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hala behar izanez gero, teknikari eskudunaren proiektuaren kopia eta proiektua egin duen teknikariaren ordainsarien kopia
<ul style="list-style-type: none">• Inguratzaile termikoa hobetzeko obretarako:<ul style="list-style-type: none">- Teknikari eskudunaren proiektua, dagokion profesionalen elkargoak oniritzia emanda.- Hobekuntza energetikoari buruzko I. eranskinaren 1. taula (2011ko azaroren 23ko Agindua).
<ul style="list-style-type: none">• Jabekideen komunitatearen akta, egingo diren obrak onartzen dituen..
<ul style="list-style-type: none">• Birgaitu beharreko eraikineko aldearen argazkia.
<ul style="list-style-type: none">• Administratzailearen NANaren fotokopia
<ul style="list-style-type: none">• Eraikineko jabekideen komunitateak duen IFZren fotokopia.
<ul style="list-style-type: none">• Eraikineko jabekideen komunitateak duen kontu-zenbakia ziurtatzeko banku-agiria.
<ul style="list-style-type: none">• Birgaitzeko jarduketaren babestu baten jabeen erkidego eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hasteko eskaera
<ul style="list-style-type: none">• Obrak azpikontratatu behar direnean eta birgaitze-jarduketaren aurrekontu babesgarria 40.000,00 eurotik gorakoa denean, BEZik gabe, kontratua burutu aurretik gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko dira, salbu eta, obren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan eskaintza horiek egiten dituzten enpresen kopuru nahikoa ez badago. Aukeraketa berariaz justifikatu beharko da memoria batean, baldin eta proposamen ekonomiko onuragarriena ez bada. Diruz lagundu daitekeen kostua 50.000,00 eurotik gorakoa bada, BEZa kenduta, kontratua idatziz egin beharko da, eta, gainera, organo kudeatzaileak eskatu ahal izango du obrak hasi aurretik hark baimena ematea.
<ul style="list-style-type: none">• EATn, 1., 2. eta 3. mailetakako esku-hartzeetan antzemandako hutsuneak konpondu izanaren ziurtagiria. Hori 80/2014 Dekretuaren III. Eranskinaren ereduarekin bat aurkeztu beharko da (EHAA 101. zk., 2014/05/20ekoa). Gainera, teknikari eskudun batek sinatuta eta paperean zein PDF formatuan aurkeztu behar da, eta dagokion udaleko sarrera-erregistroko zigilua eduki behar du.